

ETXAHUN, HIL DA

Azkar zabaldu da hilberria euskaltzaleen artean: Etxahun-iruri, Pierre Bordazarre, zuberotarrik ezagunena eta maitatuena, hil da; eta Pauen hil da, horren maite zuen «Xibeúa» hartatik urrun, erruz honu zituen khantore eta pastuale hilezkorak ezin entzunik.

Etxahun hil da. Eta Zuberoa bera amiñi bat hil ote den zantzua hedatzen da Euskal Herrian gandi.

Ez dut nik euskaldun apalagorik ezagutu, zinez. Alta, Etxahunek bezuen merezimendu; bere laborari-bizimoduari eutsi baitio beti. Eta, horrez gain, eta intuizio soilaren bidez, bederatzi pastoral eman, eta ez dakit zenbat kantu eder. Horrez gainera, jakina, Ager atabalariaren «kunpation», Zuberoko herri guztiak kurritzen zituelarik.

Etxahun gizon ona zen, «gizun phestia» zinez; eta halakotzat hartua nun-nahi.

Iparraldean berarekin mintzatzeko aukera izan dudak bakoitzean, euskaltzale suharra aurkitu dut tinko. Eta abertzalea ere bai, ondoko lerroetan ageriko den bezala.

Aurrera zihoan 1948 urtea. Ongi oroitzen naiz. Euskaraz ikasten hasi berria nintzen ni orduan. Eta Donostia-ko kaira biltzen ginen euskaltzale gazte batzuk, erdi isilka, erdi beldurrez. Urte latzak haiek. Argi-izpirik ez bazterretan.

Eta Jon Etxaidek ematen zituen eskolen ondoren, eta denon pozgarri, kanta berri eta bitxi bat ikasi genuen:

«Sorlekha ixtirik gazte nintzalarik,
Parisen sarthü nintzan kurajez betherik,
Plazerez gose eta bürian hartürik
Behar niala alegera bizi.
Bostetan geroztik
Nigar eginte dit
Xiberua gatik».

Eta ozenki errepikatzen:

«Agur Xiberua!
Bazter güzietako xokhorik eijerrena,
Agur Atharratze,
Zuri ditit ene ametsik goxuenak;
Bihotzan erditik
Bostetan elki deitadzüt hasperena,
Zü ützi geroztik
Bizi naiz trixterik
Abandonatürik
Ezpeita herririk
Parisez besterik
Zü bezalakorik»...

Ez genekien kantua norena zen, ezta Euskal Herriko atal hura non zen ere. Baina martxa-aire alai horrek poztu egiten gintuen, eta esperantza-bidea irekitzen.

Eta urteak joan ziren horrela. Eta askoz ere beranduago arte Iruri-ko Etxahun egilearen berririk ez genuen izan. Baina ipartar ezezagun hark gure bihotzak bilduak zituen.

Askoz beranduago, hogeitaz urtez georago agian, lehenengo pastoralala ikusteko aukera izan nuen, Barkoxen gaizki ez banago: «Berterretx». Hona hemen Etxahunekiko bigarren elkarketa. Eta, zinez, Barkoxeko bazter zoragarri hartan, «Agur Zuberoa» hura lehenengo aldiz entzun genuen baino bortitzagoa eta skonagoa izan zen zirrara. Nola edo nondik ez dakigularik



ere, geure bihotzaren erditik mintzo bide zen Etxahun; eta geure muinetatik beretatik aire hunkigarri haiek asmatzen:

«O, zelüko Jinko Jauna!
Zuri hersatzen nüzü,
Azken oren izigarri huntan
Argi genin izadzüt»...



Pierre Bordazarre «Etxahun»

Neure belarrietan entzuten dut oraino!

Etxahun poeta baitzen osoki eta berez, Urepel-go Xalbador ere poeta zen bezalaxe. Nor ez du hunkitu, bai doinuaz bai mamiaz, Etxahun-en «khantore» famatu honek:

«Goizian argi hastian, ene leiho hegian,
Txori bat phausatzen da eta goratik hasten khantan.

Txori eijerra, hain alagera entzüten haitan,
Ene bihotzeko trixtura laster duak aidi»...

Ez ordea, hitzez betetako olerkigile; baizik-eta Zuberoako eta Euskal Herriko kezkez eta ezinegenez oratua:

«Euskal herriko plaza hanitx hütsik dira.
Nurat hurtü dira hanko pilotarik?
Ostatietan bazter güzik ixil dira,
Nurat galdü dira leheneko khantarik?
Ezta herrin zahar zumbait baizik,
Gaztiak oro ezkapirik.
Jeik' hadi Euskadi, eta mintza hadi
Ozenki gure gazteriarri,
Behar diala bethi fidelki kunserbi
Gure usantxa zahar horik»...

Baina Etxahunen abertzaletasuna, euskarari datzekio:

«Nurk erran othe zian:
«Gaskoif da Eskiula,
Gaztek ükhatü diela
Zaharren odola?».
Ez! Euskara bizi da
Han bethi bezala,
Eta orok laidatzen
eskaldün arbola.
Botzik girade, Eskiula,
Egon beittira fidela.

Eta bere euskal kontzientzia ez da inoiz Iparraldean mugatzen:

«Gure zazpi probintzietako Euskal herrik' eijerrena, Bihotzak dio zire, Xibero, Arauz beitzütüt maitena»...

Eta oraino ederrago agian «Hegualdeko eskualdünentako» egin zuen khantore hau:

«Abrekeria, zer tristezia horengatik, behar izan düit nik laster egin sorlekhüitik, adin-florian, ogenik gabe, inozentik, maite beitzüntüdan, o Ama Eskuadi, oron gañetik!»...

Oren trixte honetan beste izari bat hartzen bide du, halako batez, Ligin, egin zidan eskain-lerro hark:

«Gipuzkoa-ko anaier, agur!».

Guk askotan zuberotarrak frantsesizat eta arrotzat hartzen baditugu ere (eta Euskadiren izenean!), Etxahunek «anaia» tzat baikuntuen gipuzkoarrok eta Hegoaldeko euskaldun guztiok.

Orain, horrela, «por pragmatismo» eta «por realismo» euskal abertzaletasuna hiru probintzi «vascongado»en aldeko erdal regionalismo ustel eta hutsal bihurtu nahi den une honetan, Etxahunen heriotzak lotsatu ere egiten gaitu. Iruritarrak ere gure Anaiak baitira; eta Guztiz anaiatzat senditzen ez dituenak, nekez hitzegin baitezake abertzaletasunaz eta Euskadiz. Gaur Irurin Anaia eta Aberkide zen laborari musikari handi eta apal bat galdu

dugu. Agian jakingo dugu halakotzat hartzen eta ospatzen!


Ohore handiagorik ezin eman poesia hau eman zigun zuberotarrari:

«Ama Euskadi-entako Zer nüke suhetatzeko, Oro irus ikhusteko? Gaztelietan dütien haurrak Aurthen libra ditin oro!»

Bai, adiskideok; Etxahunek amnitiä ere eskatzen baitzuen, eta «gaztelietako» anaien askatasuna galdatzen.

Etxahunia-ko guztiei eta Zuberoko aberkide guztioi, nik eta nirekin batera euskaltzale eta abertzale guztiok: Nahigabean lagun gaituzue.

TXILLARDEGI



Días del cielo (Days of heaven)

Terrence Malick guionista y realizador de esta película establece contacto por medio de su productor Bert Schneider con el director de fotografía Nestor Almendros. De la fusión de estos hombres surgirá una película cuya primera versión duraba tres horas, viéndose posteriormente obligados a reducirla a su actual estado: 1 hora 34 minutos. La película narrada en primera persona, nos habla de una historia simple y esquemática sin aparentemente intenciones secretas, pero con un sentido plástico fuera de lo común hasta el punto que la realización que ha hecho de ella Terrence Malick se encuentra próxima del foto-montaje animado.

Si bien es cierto que el realizador intenta evitar que la técnica de la fotografía domine sobre la historia, la personalidad de Nestor Almendros se impone de forma total hasta el punto que, a veces, tenemos la sensación de ver una película construida a base de diapositivas donde los elementos formales son contrapuntos de amañamiento de una historia que languidece por su falta de fuerza de expresión. Suave, dulce y por momentos cándida, nos va mostrando unos personajes cuyo mundo interno nos habla mucho más por «eso» que está en período de «perdersé» o «escaparse» más que por su propia presentación psicológica. Rostros desguisados, inexpresivos desfilan ante las cámaras como sugerentes apariciones que se entroncan en la naturaleza formando parte del abanico ecológico.

La secuencia de la aparición de los aviadores con el enano hablando en ita-

liano, nos enseña con que candidez pueden ocurrir los hechos, fenómenos por otra parte, que parecen gratuitos pero que se diluyen por nuestras vidas como una suma de elementos causales. ¡La casualidad ha cobrado sentido en la aventura! y esta aventura que se inicia en estos trabajadores nómadas, que siempre tienen los ojos puestos en otros lugares diferentes del que viven, encuentra la muerte cuando, valiéndose del amor procuran asentar posiciones y comenzar a crear raíces.

La historia comienza en Texas en 1916. Un antiguo obrero de fábrica, Bill, su amiga Abhy a la que le hace pasar por su hermana y la pequeña hermana de este (siendo ella la narradora en voz «off» de la película) Linda.

Son contratados como asalariados durante la recogida del trigo. El patrón es

rico pero se encuentra gravemente enfermo. Cuando se enamora de Abhy, Bill incita a su compañera a que se case. De esta manera, cuando este muera será ella la heredera de la fortuna.

La belleza visual de esta película es como un himno de exaltación de la luz en el eterno diálogo entre la tierra y las estaciones y sin embargo el drama se encuentra presente, sórdido y patético, el drama de este hombre y esta mujer que para escapar de la miseria y conseguir la felicidad pierden lo único que poseían «su amor».

Pero es sobre todo la presencia de Linda (la hermana pequeña) el centro de atracción de la película. Su dureza. Su verdad. Atraviesa y desfila por la película como un pequeño juguete que hace sus juegos en medio del cataclismo y que los describirá y los comentará con la fría y terrible lucidez que da la infancia.

Quizás sea gracias a este personaje de Linda que podamos olvidar que el lirismo de Malick es demasiado formalista y muy precioso con exceso de amañamiento puesto que diluye la vida de estos personajes en un exceso de expresión por el paisaje, quedando las relaciones entre ellos como hechos poco profundos y con cierto dominio de gratuidad.

askatasuna.
...por la libertad,
contra la barbarie.